



ESKOLA ALDIRIAK

HEZKUNTZA KOMUNITATEARI ZUZENDUTAKO

PROIEKTUEN VI. DEIALDIA

- OINARRIAK 2020/2021 -

Zer nolako eragina du **espazioaren** egiturak eskolan ematen diren harremanetan? Nola hobetu eskola barruko eta kanpoko **harremanak**? Nola sortu eta elikatu **aniztasuna** (kulturala, funtzionala, genero-aniztasuna...) erdigunean jartzen duten espazioak? Nola sustatu **tratu onak**? Nola ireki **hausnarketarako** bideak? Nola eragin dezakete praktika artistikoez prozesu hauetan?

1. AURKEZPENA

Eskola aldiriak deialdiaren helburua hezkuntza komunitatearekin arteari eta hezkuntzari buruzko lankidetzaren proiektu bat garatzea da. Deialdi honek, lan egiteko moduak birpentsatzeko aukera ematen du hezkuntza-komunitatea indartzen duten ikasketaren prozesuak martxan jarritz.

Eskola aldiriak deialdian aurkezten diren proposamenek honako erronka hauek izan behar dituzte oinarrian: elkarbizitza, espazio publikoaren erabilera, auzoarekiko harremana, hezkuntza-proiektuan hezkuntza-komunitatearen inplikazioa (familiak, ikastetxeko langileak...) eta metodologia pedagogiko berriak praktikan jartzeko interesa.

Deialdi honen bidez, Tabakaleratik hezkuntza-proiektu eta prozesu esperimentalak sustatzen dira, kultura garaikidea eta praktika artistikoak hausnarketarako eta ikasketaren prozesu kolektiboak garatzeko bitartekotzat hartuz. Izan ere, arte garaikidea pentsamendu kritikoa ahalbidetu eta inguratzen gaituzten gai gakoaren inguruan hausnartzeko funtsezko tresna da, eta horrelako topaketek bizi garen munduari begiratzeko moduak zabaltzen eta konplexuago egiteko aukera eman dezakete.

2. HELBURUAK

Eskola aldiriak proiektuaren helburu nagusia, hezkuntza-komunitatearen baitan ematen diren harreman eta espazioaren inguruan hausnartzea da. Hau kultur-bitartekaritza prozesu baten bidez indartzeko, lantalde bat eraiki eta epe-luzeko lanketa bat bideratuz.

Lotura duten beste helburuak:

- Eskolako gatazka, nahi eta beharrei erantzun berriak bilatzea.



- Proposamenaren motore nagusitzat ikasleen interesak hartzea.
- Aldaketa-proiektuak egitea, inguruko beste agente batzuekin parte-hartzeko dinamikak eta praktika artistikoetatik abitzean diren metodologia berriak erabiliz.
- Herri eta auzoetako espazio publikoak berreskuratzea harremanetarako lurralde moduan.
- Prozesu komunitarioak eta lan kolektiboa sustatzea.
- Sorkuntza artistikoa ikastetxeko hezkuntza-proiektuarekin harremanetan jartzea.

3. ORAIN ARTE EGINDAKO PROIEKTUAK

2014/2015 ikasturtean, *Auzoko hitzak* proiektu pilotua egin zen (Aitor Ikastola, Mundaiz Ikastetxea eta Maria Reina Eskolarekin batera). Orduetik martxan jarri zen urteroko deialdia eta gaur gaurkoz proiektu hauek garatu dira:

2015/2016: *Ikastolatik auzora*, auzotik ikastolara, Jakintza ikastola (Antigua, Donostia)

2016/2017: *hilHERRIbizi*, Lauaizeta Ikastola (Intxaurren/Egia, Donostia)

2017/2018: *Harremangune*, Txirrita eskola txikia (Ereñotzu, Hernani)

2017/2018: *Gelditu, lasaitu eta bizi! Eskola bideak*, Arizmendi Ikastola (Eskoriatza)

2018/2019: *Zubiak eraikiz. Komunitate esparru berriak sortzen*. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultatea UPV/EHU (Donostia)

2018/2019: *Jolastu, jolastu eta jolastu*. Samaniego Herri Ikastetxea (Tolosa)

2019/2020: *Transpatioa*. Elizalde Herri Eskola (Oiartzun)

Proiektu guztiak hemen kontsultatu daitezke: <https://www.tabakalera.eu/eu/eskola-aldiriak>

4. DEIALDIAREN EBOLUZIOA

*Eskola aldiria*ren deialdian azken urteetan aurkeztu diren proposamenetan aldaketak somatu ditugu eta horrek deialdiaren markoa birpentsatzera eramanez gaitu VI. edizio honetan.



Pil-pilean dagoen gaia da eskolek arkitektonikoki ez diotela erantzuten unean dauden behar, hausnarketa eta egiteko moduei. Horrek ikastetxe askotan batez ere kanpoko espazioen inguruko gogoeta sustatu du, hauek moldatzeko eta aldatzeko beharrak azaleratuz. Proiektu eta dinamika ezberdinak zabaltzen eta erreferente bihurtzen ari dira, gainera, eta olatu honek eskolen-espazioak aldatzeko gogoia piztu du han eta hemen. Guzti honek, uneko beharrei erantzuteko modu eta aukeretan pentsatzera eraman gaitu.

Eskola aldiriak proiektuaren azken deialdietan nabarmena izan da joera hau; proposamen gehienen oinarria berbera izan delarik. Guzti honek, uneko beharrari erantzuteko modu eta aukeretan pentsatzera eraman gaitu.

Bestalde, azken urteetan garatutako proiektuek hausnarketa eta ikasketarako aukera ezberdinak eman dizkigute eta ikasketa horiek bildu eta antzeko prozesuak martxan jarri nahi duenaren eskuetan jartzeko beharra sortu zaigu. Horretarako deialdi honetarako esperientzia guzti horietatik abiatuta sortu dugun dokumentu bat erabiliko da gida gisa.

Aurreko deialdietan proiektu zehatz baten inguruan modu iraunkor batean lan egin badugu ere, oraingo honetan, momentu berean eskola ezberdinekin batera lan egitea erabaki da. Modu honetan orain arte jaso dugun eskaerari erantzun nahi diogu.

Beraz, VI. deialdi honetan gehienez 5 izango dira aukeratutako proiektuak. Tabakaleratik proiektu bakoitzari jarraipena egingo zaio eta bitarte horretan proiektu guztiak elkartuko dituen topagune bat sortuko da urtean zehar finkatutako saio ezberdinen bidez. Proiektu bakoitzeko ordezkeriez osatutako topagune honekin elkarrengandik ikasteko espazioa sortu nahi da, une berean garatzen ari diren tokian tokiko proiektuen arteko esperientzia trukea emanez, elkar elikatuz eta elkarrengandik ikasiz.

5. METODOLOGIA

Datak: 2020ko urritik 2021eko ekainera

Faseak:

Faseak	Datak	Ikastetxeek eman beharreko pausoak	Topagunearen saioak
I. Fasea	Urria-Abendua	Proiektu bakoitzaren diseinuari forma eman Proiektu bakoitzaren lan taldeak osatu edo indartu	I. Saioa (urria): Proiektuen aurkezpena eta elkar ezagutza II. Saioa (azaroa)



		Egutegia zehaztu Metodologia eta edukiak zehaztu	
II. Fasea	Urtarrila-Apirila	Lan talde eta irakasleen formakuntza Ikasleekin saioak (saio hauek irakasleek dinamizatuko dituzte) Gonbidatuaren esku-hartzea	III. Saioa (urtarrila) IV. Saioa (martxoa) V. Saioa (apirila)
III. Fasea	Maiatza-Ekaina	Esku-hartzea Sozializazioa Ebaluazioa	VI. Saioa (maiatza) VII. Saioa: Saio irekia: Esperientzien azalpena eta hausnarketa

6. PROIEKTUAREN OINARRIAK

Norentzat da?

Gipuzkoa lurralde osoko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, institutuak, lanbide heziketako ikastetxeak, eskola libreak... aurkeztu ahal izango dira, publikoak zein pribatuak, inguruko beste agente soziokultural batzuekin batera. Ez da beharrezkoa ikastetxeko ikasle guztiek parte hartzea; aukera dago mailaka aurkezteko edo hainbat mailatako talde batzuk bakarrik. Deialdi honetan aipatutako helburu eta lan-lerroekin bat egiten duten proiektuak aurkeztu ahalgo dira.

Zer proposa daiteke?

Hezkuntza-komunitatearen behar partekatu batetik abiatutako proiektuak izan behar dira. Dimentsio handikoak zein eskala txikikoak izan daitezke, betiere helburua eskolako zein talde konkretu bateko harremanak indartzea izango delarik. Proiektuak aukera eman behar du eskolako espazio fisikoak eta bertan gertatzen diren harremanen inguruan hausnartzeko. Proiektuak ikastetxe eta testuinguru bakoitzaren berezitasunei erantzun behar die.

Aurkezteko epeak eta garapena

Deialdia 2020ko maiatzaren 25etik ekainaren 25era egongo da irekita.

Ebazpena 2020ko ekainaren 29an argitaratuko da.



Hautatutako proiektuak 2020/2021 ikasturtean garatuko dira.

Hautatzeko irizpideak

Hautatze prozesuan, deialdi honen oinarriekin eta Tabakalerako lan lerroekin bat datozen proiektuak baloratuko dira. Tabakalerako hezkuntza arloak egingo du proiektuen hautaketa.

Balorazio irizpideak

- Proiektua bideragarria izatea eta aurkeztutako ideiak sendoak izatea.
- Proiektuak ikastetxearen eta auzoaren inguruko interesa piztea: komunitate horretan pertsona askori eragiten dion gai batetik abiatzen gara edo gutxi batzuen beharrezanean erantzuten die?
- Eragile batek baino gehiagok duten behar batetik abiatzea.
- Proiektuak beste agente batzuekiko lankidetzaz eta sare lana sustatzea (auzoa, hezkuntza-komunitatea).
- Ikastetxe eta agente parte-hartzaileak prest egotea ohiko metodologiak eraldatzeko eta lan-estrategia berriak abiatzeko.
- Ikastetxeak eta agente parte-hartzaileek gaitasuna izatea beste bitarteko eta baliabide batzuk bilatzeko proiektuaren garapena babesteko.
- Gaitasuna izatea proiektua autonomoki garatzeko.

Tabakaleraren konpromisoak

- Aukeratutako proiektuen ordezkariak bilduko diren topaketen koordinazio eta dinamizazioaren ardura Tabakalerako hezitzaileena izango da.
- Tabakalerako hezitzaileak aukeratutako proiektuen bidelagunak izango dira prozesuaren antolaketa eta zehazteko momentuetan. Behar den kasuetan erreferentziak eta proposamen ezberdinak mahai gainean jarri eta proiektuen jarraipena egingo da. Tabakalerak ez du bere gain hartuko proiektuen koordinazio eta kudeaketa lanik.
- Orain arte *Eskola aldiriak* proiektuetan sortutako ikasketa eta esperientziak jasotzen dituen dokumentua lan taldearen eskura jarriko da.
- Proiektuak garatzeko baliabide ekonomikoak; gehienez 1500€ ahalbidetuko dira



proiektu bakoitzerako. Kopuru honetan barne hartzen da;

- Artista-gonbidatuaren ordainsaria; gehienez kopuruaren %60
- Prozesua zehar egon daitezken formakuntza beharrak
- Materialak
- Esku-hartzeko beharrak

Ikastetxeen eta parte hartuko duten beste eragileen konpromisoak

- Proiektuaren hastapenetatik, bideragarri egiteko lantalde bat edo arduradun zehatz batzuk zehaztuta izatea.
- Proiektuak ikastetxeko zuzendaritzaren oniritzia eta babesia izatea.
- Malgutasuna lan-dinamikei, guneei eta antolakuntzari dagokionez.
- Proiektuen arteko topaketetan iraunkorki eta modu aktibo batean parte hartzea; hausnarketarako eta esperientzia partekatzeke espazioa izan dadin sustatuz. Horretarako Tabakalerara edo beste ikastetxe batzuetara desplazatzea, beti ere desplazamendu hauek modu rotatibo batean antolatuko direla kontuan hartuta.

Aurkeztutako proiektuen arabera, Tabakalerak beretzat gordetzen du deialdia hutsik uzteko eskubidea edo oinarrien zati bat aldatzekoa, betiere hautatutako proiektuetan inplikaturakoekin bat etorriz. Bestalde, ikasturte osoko baldintzak prozesua hasi aurretik zehaztuko dira bi aldeen artean.

7. ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak PDF formatuan bidali behar dira posta elektronikoz hezkuntza@tabakalera.eu helbidea, mezuaren gai honako hau zehaztu: Deialdia: Eskola aldiriak

Eskaeran proiektuaren nondik norakoak azaldu behar dira, 2-5 orrialdetan. Puntu hauen arabera antolatu daiteke:

1. Nondik dator proiektu-idea? Zer testuingurutan sortzen da ideia hau? Zein da testuinguru horretan landu nahi den gatazka edo gatazkak? Zein lotura du espazio fisikoarekin?
2. Zein irakasgai edo curriculumaren edukiarekin lotuko zenukete proiektua?
3. Proiektu hau garatzeko inguruko zein eskola, eragile edo elkarterekin lan egitea planteatzen duzue?
4. Zergatik nahi duzue proiektu hau Tabakaleraren kolaborazioarekin garatu eta deialdi honetan parte hartu?



5. Zergatik uste duzue interesgarria izan daitekela proiektua praktika artistikoekin lotzea?
6. Aurretik egindako beste proiektu batzuk
7. Oharrak

Zalantzak eta informazio gehiago:

hezkontza@tabakalera.eu

943 011 311

www.tabakalera.eu